



**LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL
AUZITEGIAREN EBAZPENA EUSKADIKO
AUTONOMOAK 2/2007 U.P.T.
ESPEDIENTAZ**

**RESOLUCIÓN DEL TRIBUNAL VASCO
DE DEFENSA DE LA COMPETENCIA
SOBRE EL EXPEDIENTE 2/2007 U.P.T.
AUTÓNOMOS DE EUSKADI.**

AURREKARIAK

Lehena.- 2007ko uztailaren 30ean, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko errejistroan sarrera eman zitzaion Koldo Méndez Gallego jaunaren idazki bati (“Union de Profesionales Trabajadores Autónomos de Euskadi” elkartearen izenean arituz), zeinaren bidez Lehiaren Defentsari buruzko Legeak debekatutako ustezko jarduerak jakinarazten baitziren.

Bigarrena.- Idazkian ondoko gertaerei buruz azalpena egiten da:

Salatzailearen arabera, bezeroekin hartutako konpromisoei erantzuna emateko (oinarrizko lineen alta eta mantentzeak, ISDN lineen alta eta mantentzeak, ADSL lineen eta Imagenio zerbitzuen alta eta mantentzeak, datu-ahots eta datu berezien zerbitzuak), TELEFONICAK adostasun politikak erabiltzen ditu, baita enpresa txikiei kalte egitekoak ere. Hori horrela, enpresa handiak kontratatzen ditu (ELEC NOR,S.A. eta COMFICA S.L. Bizkaian eta Araban, eta INTELSIS S.L. Gipuzkoan), zerbitzuak eskusibaz emateko kontratua eskaintzen dizkielarik. Beraz, enpresa hauek TELEFONICAK bezeroekin hartutako konpromisoei erantzuna ematearen arduradun bihurtzen dira.

HECHOS

Primero.- En fecha 30 de julio de 2007 tuvo entrada en el registro del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco un escrito presentado por D. Koldo Méndez Gallego, en nombre y representación de la “Union de Profesionales Trabajadores Autónomos de Euskadi”, por el que se comunicaba la existencia de supuestas conductas prohibidas por la Ley de Defensa de la Competencia

Segundo.- Las conductas denunciadas son las siguientes:

Según el denunciante, TELEFONICA, para dar respuesta a la demanda de los compromisos de contratación adquiridos con sus clientes en lo que se refiere a altas y mantenimiento de líneas de telefonía básica o RTB, alta y mantenimiento de líneas RDSI, alta y mantenimiento de líneas ADSL y servicios de Imagenio, y servicios de datos voz y datos especiales, utiliza políticas de concertación y menoscabo de las pequeñas empresas, contratando a grandes empresas (ELEC NOR,S.A. y COMFICA S.L. en Bizkaia y Araba e INTELSIS S.L. en Gipuzkoa), a las que se les ofrece un contrato de prestación de servicios en exclusiva en el que las citadas empresas se erigen como responsables del cumplimiento de los compromisos adquiridos por TELEFONICA con sus clientes.



TELEFONICAK enpresei eskaintzen dizkien kontratuetan honako baldintza hauek agertzen dira: TELEFONICAREN instalakuntzak, materialak eta zerbitzuak erabili behar dituztela, kontratuetan agertzen diren zerbitzuak emateko.

Hirugarrenak kontratatuzko formula hori erabiliz, TELEFONICAK bere giza-baliabideen gabezia estaltzen du, baita prezioen adostasuna egin ere, nagusitasunaz gehiegi baliatzen.

Beste aldetik, TELEFONICAK kontratatutako enpresek euren konturako langile eta langile autonomoak (menpekoak) erabiltzen ditu kontratuetako helburuak betetzeko. Baina, praktikan, enpresa horiek langile autonomoak (menpekoak) eskulan gaituztat hartzen dituzte norberaren konturako langileen gabezia estaltzeko eta, beraz, TELEFONICAREKIN sinatutako kontratua betetzeko.

Enpresa horiek langile autonomoak kontratatzen ditu, baina beste enpresa batzuk azpikontratatzeko dituzten menpeko langile autonomoen lana kudeatzeko. Azpikontratatzeko enpresek menpeko langile autonomoek euren lanaren truke jaso behariko zutenariko zati bat jasotzen dute euren kudeaketaren truke,

Honenbestez, TELEFÓNICA, bere kontratatutakoak eta bere azpikontratatzekoak nagusitasun gehiegi baliatzen dira, menpeko langile autonomoek ordain berdina ez jasotzeko.

Hau guztiagatik, ezta TELEFÓNICAK, ezta bere kontratatutakoek ere, ez dituzte menpeko langile autonomoen eta enpresa txikien eskakizunak aintzat hartzen, ondokoari dagokionez: lan egutegia, altak eta bajak, materialak eta jantziak, ordainketak eta KPI, eta instalatzaile eta banatzaileen erantzukizuna.

TELEFONICA establece a las empresas contratadas unas condiciones de contrato en las cuales éstas deben hacer uso de las instalaciones, materiales y servicios propiedad de TELEFONICA para llevar a cabo los servicios establecidos en el mismo.

Utilizando esta formula de contratación de terceros, TELEFONICA cubre la escasez de recursos humanos propios de los que cuenta actualmente y realiza con las contrataciones una concertación de precios en claro abuso de la competencia.

Por otra parte, las empresas contratadas por TELEFONICA utilizan sus trabajadores por cuenta propia y trabajadores autónomos (dependientes) para cumplir con los objetivos del contrato suscrito. Pero en la práctica las contrataciones utilizan al trabajador autónomo dependiente como mano de obra cualificada para cubrir la escasez de trabajadores por cuenta propia que necesitan para el cumplimiento del contrato firmado con TELEFONICA.

Las contrataciones utilizan al trabajador autónomo contratándolo directamente pero a su vez se valen de empresas subcontratadas para que gestionen las tareas del trabajador autónomo dependiente. Estas subcontratas cobran su gestión empresarial del total de lo que el trabajador autónomo dependiente debiera de recibir por el resultado de su trabajo.

Existe, pues, una posición dominante entre TELEFÓNICA, sus empresas contratadas, y las empresas subcontratadas por éstas, para que los autónomos dependientes de TELEFONICA no funcionen sujetos a una contraprestación común de servicios.

Consecuencia de todo ello, ni TELEFONICA ni sus contrataciones atienden las reivindicaciones de los trabajadores autónomos dependientes y pequeños empresarios referidas a calendario laboral, altas y bajas, material y vestuario, forma de pago e IPC, y responsabilidad del instalador y del repartidor.



Hirugarrena.- Irailaren 18ko dataz, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari, baliatuz-eta Lehiaren Defentsarako 15/2007 (uztailaren 3a) Legearen 49,3. artikuluan ezarritakoa, espediente zigortzailerik ez inkoatzeko proposamen bat ekarri zion, berori zelarik “Unión de Profesionales Trabajadores Autónomos de Euskadi” elkarteak Telefónica S.A., Elecnor S.A., Comfica S.L. eta Intelsis S.L. enpresen kontra aurkezturiko salaketari buruz, eta hori guztia ez baita Lehiaren Defentsaren Legearen prezepturen bat edo beste urratzen deneko ezein zantzurik.

Laugarrena.- 2007ko abenduaren 4an Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia Osoko batzarrean bildu zen asmo zuelarik eskuartean dugun espediente hau erabakitzea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 49.3 artikulua zera xedatzen du: Lehiaren Defentsarako Batzordeko Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta (*gure kasuan, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua, Legearen zortzigarren Xedapen Gehigarriarekin bat etorriz*), zilegi izango du Lege horren 1, 2 eta 3 artikuluek debekatutakoa ustez egiteagatik dagozkion prozedurak ez hastea, baita jarduerak artxibatzea ere, pentsatzen badu Lege beraren arau-hausteren aztarnarik ez dagoela.

Bigarrena.- Salatzaileak emandako dokumentazioa aztertuta, zera ulertzen da: salatutako egintzak langile autonomoen eskakikuzunak besterik ez direla, haien lan

Tercero.- Con fecha 18 de septiembre, el Servicio Vasco de Defensa de la Competencia elevó al Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia, en virtud de lo establecido en el artículo 49,3º de la Ley 15/2007, de 3 de julio, de Defensa de la Competencia, propuesta para la no incoación de expediente sancionador, en relación a la denuncia presentada por la “Unión de Profesionales Trabajadores Autónomos de Euskadi” contra Telefónica,S.A., Elecnor,S.A., Comfica,S.L. e Intelsis,S.L., por no existir indicios de infracción a los preceptos de la Ley de Defensa de la Competencia.

Cuarto.- Con fecha de 4 de diciembre de 2007 el Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia se reunió en sesión Plenaria al objeto de resolver el expediente que nos ocupa.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.- El artículo 49.3 de la Ley de Defensa de la Competencia establece que el Consejo de la Comisión Nacional de Defensa de la Competencia, a propuesta de la Dirección de Investigación (*en nuestro caso, el Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y el Servicio Vasco de Defensa de la Competencia, en virtud de lo dispuesto en su Disposición Adicional octava*) podrá acordar no incoar los procedimientos derivados de la presunta realización de las conductas prohibidas por los artículos 1, 2 y 3 de dicha Ley y el archivo de las actuaciones cuando considere que no hay indicios de infracción de la misma.

Segundo.- Examinada la documentación aportada, se entiende que los hechos denunciados se circunscriben a reivindicaciones de trabajadores



baldintzei buruzkoak. Eskakizun horiek, aldiz, ezin dira babestu lehiaren arloan.

Beste aldetik, ez da aurkitu Lehiaren Defentsari buruzko Legeak ezarritakoa hautsi delako inolako zantzurik.

Ikusirik-eta “Unión de Profesionales Trabajadores Autónomos de Euskadi” elkarteak TELEFÓNICA S.A., ELECNOR S.A., COMFICA, S.L. eta INTELSIS, S.L.-ren kontra egindako salaketa, ikusirik orobat Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak jasotako proposamena, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak diktatzen du ondoko

EBAZPENA

LEHENIK.- Artxiba bedi “Unión de Profesionales Trabajadores Autónomos de Euskadi” elkarteak TELEFÓNICA S.A., ELECNOR S.A., COMFICA S.L. eta INTELSIS S.L.-ren kontra egindako salaketa

BIGARRENIK.- Jakinaraz bekio ebazpena hau salatzaileari, hots, “Unión de Profesionales Trabajadores Autónomos de Euskadi” elkarteari, salatuei, hots, TELEFÓNICA S.A.-ri, ELECNOR S.A.-ri, COMFICA S.L.-ri eta INTELSIS S.L.-ri eta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuburuari.

Vitoria-Gasteizen abenduaren 4an, 2007.

**EL PRESIDENTE
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE**

**EL VOCAL
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA**

autónomos en relación con sus condiciones de trabajo, las cuales no pueden obtener amparo en este ámbito, no habiéndose detectado, por el contrario, la existencia de indicios de infracción alguna a los preceptos de la Ley de Defensa de la Competencia.

Vista la denuncia realizada por la “Unión de Profesionales Trabajadores Autónomos de Euskadi” contra TELEFÓNICA S.A., ELECNOR S.A., COMFICA, S.L. e INTELSIS, S.L. y vista la propuesta del Servicio Vasco de Defensa de la Competencia, el Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia dicta la siguiente

RESOLUCIÓN

PRIMERO.- Archivar la denuncia realizada por la “Unión de Profesionales Trabajadores Autónomos de Euskadi” contra TELEFÓNICA S.A., ELECNOR S.A., COMFICA, S.L. e INTELSIS, S.L.

SEGUNDO.- Notificar esta resolución a la parte denunciante, “Unión de Profesionales Trabajadores Autónomos de Euskadi”, a las partes denunciadas, TELEFÓNICA S.A., ELECNOR S.A., COMFICA, S.L. e INTELSIS, S.L. y al Director del Servicio Vasco de Defensa de la Competencia.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de diciembre de 2007.

**EL VICEPRESIDENTE
JAVIER BERASATEGI TORICES**

**EL SECRETARIO
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI**